

## IRAKASLEAK. SENTSIBILIZAZIOA

2. TRESNA. IRAKASLEEN JARRERAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK<sub>1</sub>

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu noraino zauden ados, 1etik (ez bazaude batere ados) 4ra (erabat ados bazaude).

IRAKASLEEN JARRERAK, HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK					
1.	Gaur egun, jendartean, sexua dela-eta ez da inor diskriminatzen.	1	2	3	4
2.	Gizonek emakumeek baino erabakimen handiagoz erreakzionatzen dute, berez.	1	2	3	4
3.	Emakumeek intuizioa gizonek baino gehiago baliatzen dute, eta arrazoia gutxiago.	1	2	3	4
4.	Gizonak emakumeak bezain sentiberak, afektiboak eta ordenatuak izan daitezke.	1	2	3	4
5.	Gizonak emakumeak baino lehiakorragoak dira, senez.	1	2	3	4
6.	Sexuen arteko berdintasun eraginkorra lortzea eta diskriminazio mota orori uko egitea: hara hor gure ikastetxeak izan beharreko zeharkako helburuetariko bat.	1	2	3	4
7.	Eskola mistoaren egungo ereduak ez du helburu hori lortzea errazten.	1	2	3	4
8.	Gure ikastetxeak Hezkidetza-eredu batetik abiatuta lan egin beharko luke.	1	2	3	4
9.	Hizkuntza sexista ez izatea da kontuan hartzen dudana irizpideetariko bat, material didaktikoa hautatzerakoan.	1	2	3	4
10.	Hezkidetzaren alde batzuk ez dira baloratzen ikastetxean; adibidez, hizkuntza ez-sexista erabiltzea.	1	2	3	4
11.	Sexismoak jendartean desagertzeko joera izan beharko luke.	1	2	3	4

Iturriak:

- Teon XXI. proiektua DIME taldea. Sevillako Unibertsitatea.
- Díaz-Pinés Sendra, C. *Diagnóstico sobre la realidad en los centros en materia de igualdad*. Jerezeko Irakasleen Zentroa.

IRAKASLEEN JARRERAK, HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK					
12.	Gaur egun, pertsona gehienek onartzen dute aukera-berdintasuna, baina teorian baino ez.	1	2	3	4
13.	Ez da zaila ikastetxeetan ildo horretan lan egitea.	1	2	3	4
14.	Irakasleek berdintasunari buruzko planteamenduak onartzen dituzte.	1	2	3	4
15.	Mutikoak eta neskatilak elkarrekin hezteak ez du berez berdintasunik sortzen.	1	2	3	4
16.	Hezkidetzak ez die neskei soilik mesede egiten, mutilen onurako ere bada.	1	2	3	4
17.	Gai zehatzak hautatuz soilik ez dugu Hezkidetzaz lantzen.	1	2	3	4
18.	Hezkidetzari buruzko lana lagungarria izan daiteke detektatutako egoera sexistak gaingaitzeko.	1	2	3	4
19.	Ez da ohikoa horrelako gaiak lan-taldeetan eztabaidatzea.	1	2	3	4
20.	Hezkidetzaz lantzeak jarrera pertsonalak alda ditzake.	1	2	3	4
21.	Material didaktikoa ona bada, berdina da elementu sexistak baditu.	1	2	3	4
22.	Eskolako genero-berdintasunaren gaineko gaur egungo araudia gure ikastetxean ez dagoen arazo bati buruzkoa da.	1	2	3	4
23.	Berdin da irakasle bat homosexuala edo lesbiana izatea.	1	2	3	4
24.	Kontzeptu bat azaltzeko adibide bat jarri behar dudanean, ez dut gizonen eta emakumeen irudi tradizionala erabiltzen.	1	2	3	4
25.	Ez dago ikastetxean Hezkidetzako arduradunaren figura sortzeko beharrik.	1	2	3	4

Item desberdinei erantzun ondoren, balorazioak talde txikian eztabaidatu eta taldearen erantzunak adosten saiatu.

Jarraian, adierazi zein item egokitzen diren eta zein ez ikastetxearen errealitatera, Hezkidetzari dagokionez (kontzienteki lantzen delako). Interesgarria litzateke item horiek garatzea. Erantzunak argudiatzea eta garatzea komeniko litzateke.

<b>Egokitzen dena</b>	<b>Garatu beharrekoa</b>